


6. BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezeroekin harreman ona ziurtatzeko eskaintzen ditugun zerbitzuak eskatzen ditugun betebeharrak baino askoz handiagoak izan behar dira, hau da, aukera asko eskaini pertsonalizatzeko eta zerbitzu asko izan beste app batzuetatik bereizteko, baina ez izatea oso zaila erabiltzeko. Modu honetan erabiltzaileak ikuskera on bat izango dute gure aplikazioaz.

Bestalde, aplikazioa erakargarria izateko ezin ditu izan haren ezaugarri erabilgarri guztiak ordaindu beharreko bertsioan. Oso oreka zaila da doako aplikazioa erabilgarria izateko behar diren beste ezaugarri jartzea, eta ordaindutako bertsioa erostea errentagarria izatea baina hau da arrakastatsua izateko gakoa.

Gainera, arazoak agertzekotan gurekin komunikatzeko bideren bat irekia izan beharko dugu *feedback*-a jasotzeko eta haiengandik kezkatzen garela erakusteko. Horretarako korreo helbide bat prestatuko dugu, baita *whatsapp*-en bidez komunikatzeko telefono zenbaki bat eta gure sare sozialetan ditugun kontuak (*Instagram, TikTok, Facebook, Twitter, etab.*).



Komunikatzeko lan hau gero eta gehiago errazteko webgune bat sortuko dugu informazioa era zuzenean lortzeko eta gure laguntzaileekin kontaktuan egotea behar ez izateko. Hor sare sozial guztiak aurkitu ahal izango dira behar badira.

Hori guztiagatik, ziurtatuko dugu aplikazio erakargarria, erabilgarria izango dela, eta ondorioz, erlazio ona izatea gure erabiltzaile/bezeroekin.